



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

5 Zk. 2009ko abendua-2010eko martxo

Informazio Buletina

EUSKARA MERKATARITZARA!

Aranguren Ibarreko Udalak 2008. urtean Euskara Merkataritzara egitasmoa abiatu zuen. Udala ordutik elkarlanean ari da Iruñerriko beste zenbait udalekin. Gaur egitasmoa bera, eta hori aurrera eramateko merkatariekin lan egiten duen Eneko Compains, EMUNeko teknikaria, ezagutzeko aukera izango dugu.

Zein edo zeintzuk dira egitasmo honen bidez Arangurenen lortu nahi diren helburuak?

Euskararen egoera inoiz normalizatuko bada, eremuak irabazi behar ditu pixkanaka pixkanaka. Merkataritzaren eremua da horien artean garrantzitsu bat. Egitasmo honen bitartez euskarari tokia egin nahi diogu Arangurengo merkataritzan, kontu errazenetatik hasita: ordutegia ele bietan jarri, irekita-itxita kartela, merkealdietako kartelak, salneurriak iragartzen dituztenak... Horretarako aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskaintzen zaie merkatariei, eta behar duten laguntza guztia, dohainik.

Egitasmo hau Iruñerriko beste herri batzuetan duela 10 urte baino gehiago martxan dago. Zein izan da herri horietako dinamika? Orokorrean dinamika motela da; motela baina emankorra. Iruñerrian Euskara Merkataritzara egitasmoa martxan jarri genuenetik 220 baino gehiago dira inizatibian parte-hartzeari baiezkoa eman dioten establezimenduak, eta emeki-emeki merkataritzan euskarari tokia egiten hasi zaio. Aintzat harturik gainera sektoreak bizi duen egoera zaila, ez da marka batere makala.

Ze ezaugarri izan behar ditu establezimendu batek udalaren laguntza jaso ahal izateko? Ez da inolako ezaugarri berezirik behar. Are gehiago, kontrakoa pentsa baliteke ere, egitasmoan parte hartzen duten establezimendu dezentetan ez dago euskaldun bakar bat ere. Merkatarirengan euskarari toki bat egiteko borondatea da beharrezkoa den bakarra; hortik aurrera, Udaleko Euskara Zerbitzutik laguntza osoa emateko prestutasuna daukagu.

Zein da merkataria edo establezimendu bakoitzarekin jarraitzen den dinamika?

Lehenik eta behin merkatariekin elkarrizketa bat mantentzen dugu, diagnostiko xume bat egin eta hobekuntza esparruak topatzeko asmoz. Hori egin ondotik oinarritzko neurri batzuk hartzeko aukera proposatzen diegu, eta merkatariekin borondatearen eta dauden aukeren arabera neurri batzuk hartzen dira eta beste batzuk ez. Dinamika oso lasaia da, merkataria bakoitzaren beharrei egokituia, eta abantaila batzuk eskeintzen dizkie: kartel elebidunak, itzulpen zerbitzua, aholkularitza teknikoak...

Zer egin beharko luke merkataria edo ostalari batek proiektuan parte hartu nahiko balu?

Egitasmoan parte hartzeko aski da Udaleko Euskara Zerbitzuekin harremanetan jartzea, telefonoz (948 15 13 82) edo e-mailez (euskera@aranguren.es). Hortik aurrera laguntza eta erraztasun guztiak emango zaizkio zerbitzutik. Argi geratu behar da zerbitzu guztiak doakoak direla.

Zeintzuk dira gaur egun egitasmoan parte hartzen duten establezimenduak?

Arangurengo Ibarrean bederatzita dira parte-hartzen ari diren establezimenduak: Arangurenko Jauregia Landa etxea, Mutiloagoitiko Eguzki eta La Era Tabernak, Mutiloabeitiko La Era, Mutilvera eta Idoi Tabernak, Daty eta Ibaialde kafetegiak, Pelos ileapaindegia eta Mutiloabeitiko industrialdean dagoen Elektromekanika Ibaialde.



Marian eta Eneko Mutiloabeitiko Daty tabernan

HAURRENTZAKO EUSKARAZKO JARDUERAK

ANTZERKIA:

Taldea: Txalo Produkzioak.

Antzezlan: "Ali"

Zuzendaria: Begoña Bilbao.

Antzezleak: Alfonso Diez, Aitor Ferdinandino.

Eguna: Abenduak 30, asteazkena.

Ordua: 18:30ean.

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa (Eguzki plaza, Mutiloagoiti).

Sarrera: 2 €.

Ikusle guztientzako jarduerak.



LARUNBLAI:

Euskarazko aisialdi talde egonkorak.

D ereduko Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako haurrentzako.

Urtarrilaren 16tik aurrerako larunbatak, 16:30etik 18:30era.

Kontsultategiko beheko aldean (Mutiloabeiti).

Izen emateak: urtarrilak 12, 13 eta 14, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara. Lehentasuna izango dute Ibarreko haurrek.

Kuota: 30 € urtarriletik maiatzera.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



EUSKAL DANTZAK

6 eta 9 urte bitarteko haurrek.

Astelehenak, **urtarrilaren 18tik aurrera, 17:30etik 19:00era**, Mutiloagoitiko Ludotekan.

Izen emateko epea: urtarrilak 12, 13 eta 14, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

Kuota: erroldatuak 10 € eta erroldatu gabekak 30 €.

Mugaturako plazak: ikasturte honetako taldea

osatu arte.

- Parte hartzaileen zerrenda izen emate hurrenkerearen arabera osatuko da.

- Erroldatu gabekak zuzenean itxaron zerrendara pasako dira. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



Dantzarien taldea 2009ko Euskararen Egunean

OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA

Aurtengo irabazlea San Pedro IPko ikaslea den **Carmen Pozueta Rodriguez** izan da. Hau da bere lanarekin egindako aurtengo Mutiloabeitiko Olentzerorako kartela:

Lehiaketaren bigarren edizio honetan 55 haurrek parte hartu dute eta aurkeztutako lanen kalitatea aipagarria izan da.

Aurkeztutako lan guztiak ikusi nahi dituenak ikusgai izango ditu **San Pedro IP**an jarritako **erakusketan**. Irekita egongo da, egunero, **arratsaldeko 20:00ak** arte.



2009ko kartel irabazlea, Carmen Pozueta Rodriguez

HAUR ETA GAZTE EUSKALDUNAK eta GURASOAK

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGO BERRIA

Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoiei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten da. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka produktu biltzen ditu paperean eta sarean topatu dezakegun edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuaren artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren araberrako banaketa egiten da.

Pasa zaituzte Euskara Zerbitzutik paperezko edizioa jasotzera edo ikusi hemen: www.katalogoa.org



2009ko katalogoaren irudia

GURASOENTZAKO JARDUERAK GAZTELERAZ

GURASOENTZAKO KAFE TERTULIA

Data: urtarrilak 20, asteazkena.

Ordua: 17:15.

Lekua: Tipi-Ttapa Haur Eskola (Mutiloabeiti).

Norentzako: 2007 eta 2008an sortutako haurren gurasoentzako.

Helburua: San Pedro IPko D ereduko gurasoak, beren ikuspegitik, eskolan matrikulatzeko adinean dauden haurren gurasoen zalantzak argitzen ahaleginduko dira. **Hautzaindegi zerbitzua** egongo da.



Imagen de la campaña municipal

NO SABEMOS EUSKERA, ¿CÓMO AYUDAR A NUESTROS HIJOS E HIJAS PARA QUE SEAN BILINGÜES?

Data: urtarrilak 21, osteguna.

Ordua: 17:15.

Lekua: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa (Es-koletako k/9. Mutiloabeiti)

Norentzako: Seme-alabak D ereduko Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan ikasten dituzten guraso erdaldunei.

Edukiak: Besteak beste, modu honetako galde-

rak erantzuten dira:

- Euskara jakin gabe nola lagundu nire seme-alabak elebidunak izan daitezten?
- Ez dut euskaraz ondo hitz egiten, erabili behar al dut nire seme-alabekin?
- Nola lagundu eskolako lanekin euskaraz ez badakit?

Hizlariak: Iñaki Eizmendi eta Julio Ibarra.

Hautzaindegi zerbitzua egongo da.

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN DIDAKTIKA ETA ABANTAILAK

Data: urtarrilak 26, asteartea.

Ordua: 17:15.



Eduardo Aldasoro iazko hitzaldiko momentu batean

Lekua:

Zehazteko.

Norentzako:

2007 eta 2008an sortutako haurren gurasoentzako.

Helburua: Eduardo Aldasoro, euskara murgiltze programen teknikari eta pedagogoa, D ereduko irakaskuntzari buruzko zuen zalantza eta egozinekin argitzen saiatuko da. **Hautzaindegi zerbitzua** egongo da.

GAZTE ETA HELDU EUSKALDUNAK

MINTZAKIDE MENDI TALDEA

Helburua: mendian lagun giroan ibiltzea, bazter ederrak ezagutzera eta batez ere, euskaraz hitz egitea.

Hitz orduak: igandeetan goizeko 8:15ean korraliloetan.

Itzulerak: arratsaldeko 5ak aldean.

Jatekoa: bakoitzak eramaten du.

Garraioa: autoetan moldatzen gara, jendearen arabera.

Aurreikusitako txangoak:

- Urtarrilaren 10ean: Elurretara (zehaztuko da nora).
- Urtarrilaren 24an: Virgen de la Peña.
- Otsailaren 7: San Pelaio (Baldorba).
- Otsailaren 21: Saioa.
- Martxoaren 7: Arnedillo aldera (Errioxa).
- Martxoaren 21: Larrun.

Federatzea gomendatzen da.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan, <http://www.blogak.com/mintzmenditaldea>, edo egitasmoaren koordinatzaileari galdetuz: 948 96 05 16.

BERTSO BAZKARIA

Eguna: martxoak 13, larunbata

Ordua: 14:00ak

Lekua: Labiano elkarte

Ticketak salgai egonen dira **martxoaren 3tik 10era** Kultur Etxean eta Euskara Zerbitzuan, ohiko ordutegian.

ARANGURENGO BIZTANLEAK

URTE ZAHARREKO JAI

Aurten, goizaldeko 1:00etatik aurrera Arangurengo **Kiroldagian** egingo den urte zaharreko jai, **Modesto "orkestra-gizonak"** girotuko du. Animatu eta parte hartu!!

SANTA AGEDAKO ABESBATZAK

Eguna: otsailak 4, ostirala.

Ordua: 20:00ak.

Lekua: Mutilo plaza (Mutiloabeiti).

INAUTERIAK

Otsailak 12an, 18:00etan, txokolatada egongo da Aranetxean. 18:30ean hasiko den "Lino Otano" Musika Eskolako Fanfarreak girotutako Kalejiraren ondoren, Mielotxin Mutilo plaza erreko da.

HELDUENTZAKO EUSKARA IKASKUNTZA

Ikasturte honetan hiru dira Ibarrean sortu diren euskara ikasteko helduen taldeak. Interesa baduzu, oraindik taldeetan sartzeko aukera izan dezakezu. Ikastaroak Ibaialdeko lokaletan ematen dira, eta hauek dira maila eta orduak:

HASIERA MAILA: astearte, ostegun eta ostiraletan, goizeko 9:00etatik 11:30era.

1.A MAILA: astelehen, astearte eta asteazkenak, arratseko 19:00etatik 21:30era

3. MAILA: astelehen, astearte eta asteazkenak, arratseko 20:00etatik 22:00etara.

EUSKALDUNEN FITXATEGIA

Aranguren Ibarrean erroldatuta egonik, euskara gaitasunen bat eta 2 urte baino gehiago duenak, eta bere datuak Euskaldunen Fitxategian egoteko interesa duenak, Euskara Zerbitzuan aurkituko duen galdetegi bete dezake.

SMS edo POSTA BIDEZ GURE ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA JASO NAHI BADUZU, BIDALI POSTA BATEAN euskera@aranguren.es HELBIDERA INFORMAZIOA EUSKARAZ, ERDARAZ EDO ELEBITAN JASO NAHI DUZUN ZEHAZTUZ.

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaituzte Euskara Zerbitzuaarekin harremanetan. Erroldatuentzako doako aleak daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskoletako k/9, Mutiloabeiti
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 13 82
euskera@aranguren.es
www.aranguren.es